

NEGOZIOAREN JARRAITUTASUNA BERMATZEKO EUSKALTEL TALDEAREN POLITIKA

Informazioaren Segurtasun Politika hori da konpainiaren aktibo fisiko eta informazio funtsezkoenei babes-maila egokia emateko erreferentzia-esparrua. Politika horren arabera zehazten, kudeatzen, administratzen eta ezartzen dira babes-maila hori lortzeko eta arriskuak kudeatzeko behar diren mekanismoak eta prozedurak.

Negozioaren jarraitutasuna bermatzeko segurtasun-printzipio eta irizpide hauek ezartzen ditu Euskaltelek:

- Aplikagarri dituen arauak eta legeak betetzea, eta hori izatea bere politikaren giltzarria.
- Aurrez adostutako kalitate-parametroen barruan ematea zerbitzuak bezeroei, jarduera guztiak normaltasunera itzuliko direla bermatzea, eta interes-taldeetan ahalik eta eragin txikiena izatea.
- Taldeko marka guztien irudia eta ospea zaintzea.
- Arriskuak eta segurtasuna kudeatzeko, langileak eta kolaboratzaileak trebatzea eta kontzientziatzea, hori baita arauak eta prozedurak betearazteko oinarria. Izan ere, denoi dagokigu arriskuaren kudeaketa, eta denok egin behar dugu lan konpainiaren aktiboak egokiro babesten saiatuz. Horretarako, ezagutu, onartu eta aplikatu egin behar dira indarrean dauden segurtasun-arauak eta- prozedurak.
- Negozioaren jarraitutasuna bermatzeko, ezinbestekoa da hauen erabilgarritasuna bermatzea: eraikinarena, informazioarena eta hura biltzeko, prozesatzeko, biltegitratzeko eta transmititzeko sistemena, eta sarearena. Horrenbestez, arriskuen prebentzioa, krisien kudeaketa eta hondamendiei aurre egiteko ahalmena bermatu behar dute arriskua kudeatzeko plan, arau, prozedura eta mekanismoek.
- Eguneroko jardueraren osagarritzat hartzea segurtasuna, eta prozesu guztietan aplikatzea, Euskaltel taldeak bezeroei ematen dizkien zerbitzuek etenik, inpaktu kaltegarriarik edo eraginkortasun-gabeziarik izan ez dezaten.
- Aztertzea, hainbatean behin, ea behar bezala betetzen diren segurtasun-politika eta hura garatzeko prozedurak, etengabe hobetzen eta arriskuak ahalik eta gehiena gutxitzen saiatuz une oro.

Politika hori gure jarduera, produktu eta zerbitzu guztiei aplikatu behar zaie, gure lantoki guztietan. Halaber, erakunde guztiari jakinarazi behar zaio, baita alderdi interesdunei ere —bezeroei, akziodunei, hornitzaileei, eta, oro har, jendeari—, eta berrikusi egin behar da, aldizka, Euskaltelentzat egokia dela egiaztatzeko.



José Miguel García Fernández jauna
Kontseilari delegatua